

**2024/2025 DONOSTIAKO GABONETAKO AZOKAN SALMENTA JARDUEREN
BAIMENAK EMATEA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUTEN
OINARRIAK**



AURKIBIDEA:

1. HELBURUA	3
2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA	3
3. ALOKAIRUAREN ETA ERABILERAREN BALDINTZAK	8
4. ONLINE GABONETAKO AZOKA	10
5. ENTITATE ERAKUSKETARIEN BALDINTZAK	10
6. ESKAKIZUNAK ETA EPEA	11
7. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA	13
8. ESKAKIZUNEN PROZEDURA ETA BALORAZIOA	13
9. ERAKUSKETARIEN OBLIGAZIOAK	18
10. KONTRATUAREN EBAZPENA	19
11. DATUEN BABESA	20
12. AZKEN XEDAPENA	20
I. ERANSKINA: ETXOLEN KOSTU EKONOMIKO XEHATUA	22
II. ERANSKINA: 2 ETXOLA MOTEN DESKRIBAPENA	23



1. HELBURUA

Oinarri hauen xedea da Donostiako Gabonetako Azokak 2024ko azaroaren 29 eta 2025eko urtarrilaren 6 bitartean (biak barne) hartzen dituen guneetan jarriko diren etxolen esleipena zuzentzeko baldintzak zehaztea.

Gabonetako Azokaren aldia aldatzera behartuko luketen baldintza bereziak suertatuz gero (sanitarioak, antolaketarenak, etab.), Donostia Sustapenak eskubidea izango du aipaturiko datak aldatzeko, aukeratutako erakusketariei aldezturik abisatuta.

2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA

Donostia Gabonetako erreferente bihurtu da. Hori argi erakusten dute Gabonetako Azokara joaten diren pertsonen datuek, bai eta herritarren eta bisitarien artean sortzen duen interesak ere.

Gabonetako Azoka kanpaina berritzaile baten barruan kokatzen da, eta Gabonetako **argiztapen** pertsonalizatua, **azokak** eta **ikuskizunak** nabarmentzen ditu. 2023/2024 edizioan, 10.000 pertsona baino gehiago joan ziren Gabonen inauguraziora, eta ekitaldi hori erreferente bihurtu da donostiarrentzat ez ezik, bisitatzen gaituzten guztientzat ere.

Donostia Sustapenetik, 2024/2025 edizio honetan, Berrikuntza, Kalitate, Elkartasun eta Iraunkortasun printzipioetan oinarritutako Gabonetako Kanpaina bat lantzen jarraituko dugu. Kanpaina horretan, Gabonetako Azoka kalitatearen ikuspegitik garatuko den ardatz nagusia da.

Puntu honetan, hautaketa-prozesuak alderdi hauek nabarmenduko ditu bereziki:

- Etxolaren barne-dekorazioa (Gabonetako koloreak eta estetika, produktua antolatzeko kalitatezko euskarriak, atrezzo egokia, etab.).
- Elementu jasangarriak erabiltzea (barruko LED argiak, etxolaren barrualdea material nobleekin estaltzea, material birziklatuak, etab.).
- Gabonetako jantziak edo postua zaintzen duten pertsonen salmenta-produktuarekin bat datozenak.

Tokiko, estatuko eta nazioarteko erakusketariek eskatu ahal izango dute etxola Gabonetako Azokan.

Donostia Sustapenak Gipuzkoan eta/edo beste probintzietan kokatutako eta lege ezarritako GKEen, fundazioen eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuentzat gorde ditzake saltokiak, eta baita hiriarentzat interesgarriak diren beste ekimen batzuentzat ere.

Halaber, nazioarteko elikagaien erakusketariak erakartzea sustatuko da, eta baita produktu berritzaileenak ere, txandakako etxolak baliatuz.



Etxola horiekin batera, hainbat elementu jarriko dira, hala nola karpak eta ferietako atrakzioak, herritarrek eta bisitariek erabiltzeko, espazio hori Gabonetako topaleku bihurtzeko.

Aipaturiko erakusketariaren aldeko ebazpenak aukera ematen du Gabonetako Azoka fisikoan parte hartzeko zein **Online Gabonetako Azokan** - DSS Market Plaza (<https://dssmarketplaza.eus>) parte hartzeko sarbide zuzena izateko.

2.1. Salgai dauden produktuak:

Gaiei erreparatuta, Gabonetako Azoka jarraian multzokatu ditugun gune/multzo bakoitzari lotutako Gabonetako produktuen edo Gabonetan saltzen diren postuak jartzeari dago zuzenduta:

- ❖ I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak:** Gabonetako produktu tipikoak, garaikoak, gozokiak, gozotegia, gastronomia, aukerako kontserbak, fruitu lehorrak, etab.
- ❖ II. MULTZOA: **Jostailuak eta haurrentzako Gabonetako opariak:** Gabonetako jolasteko haurrentzako gaiak (jostailuak, eskulanak, liburuak eta ipuinak, etab.).
- ❖ III. MULTZOA: **Artisautza eta Gabonetako opariak:** Artisautza, Apainketa, brokantea, bisuteria, moda (Gabonekin lotua gehienbat: txanoak, eskularruak, etab.), zeramika, urregintza, pintura, Gabonetako musika-tresna tipikoak, etab.
- ❖ IV. MULTZOA: **Gabonetako apainketa:** Jaiotza tradizionalarekin lotutako gaiak, irudiak eta osagarriak, Gabonetako hornidurak, argiak, girlandak, Gabonetako dekorazioa eta apaingarriak, Gabonetako loreak, etab.

2.2. Salmenta-espazioen motak eta ezaugarriak:

Aurreko ataleko produktuak saltzeko etxolak Donostia Sustapenak banatuko ditu. Eskainiko diren etxolen artean, 2 motakoak daude (txikiak eta handiak), jarraian bildutako ezaugarriekin:

2.1.1. Etxola txikiak:

- Neurriak: 3x2 metro (6 m²) Alboko barruko altuera 205cm. Altuera erdian 270cm.
- Materiala: zura.
- Aurrefabrikatutako etxola egin berriak. Honakoa dute:
 - Aurretik irekita, mostradorearekin eta baskulatzen den leihoa, sistema hidraulikoarekin eta morroiloarekin.
 - Zurezko ate trinkoa sarrailarekin atzeko partean, zurezko zorua eta okume taularekin babestutako sabaia.
 - Jarri ala ez aukeratzeko mostradorea goian.
 - Jarri ala ez aukeratzeko mostradorea aurreko partean.
 - Salgaiak jartzeko hiru apal.



- Kanpoko argiak.
- Errotulu komertziala.
- 1200W-ko diferentzialeko koadro elektrikoa eta hiru entxufe.

2.2.2. Etxola handiak:

Halako etxolak Urumea Plazaren barruan jarriko dira gehienbat, haiei utzitako tokian, eskuragarri daudenak, lehentasuna emanaz Gabonetako ohiko elikagaien I. multzoari.

- Neurriak: 4x2 metro (8 m²) Alboko barruko altuera 205cm. Altuera erdian 290cm.
- Materiala: zura
- Aurrefabrikatutako etxola egin berriak. Honakoa dute:
 - Aurretik irekita, mostradorearekin eta baskulatzen den leihoa, sistema hidraulikoarekin eta morroiloarekin.
 - Zurezko ate trinkoa sarrailarekin atzeko partean, zurezko zorua eta okume taularekin babestutako sabaia.
 - Jarri ala ez aukeratzeko mostradorea goian.
 - Jarri ala ez aukeratzeko mostradorea aurreko partean.
 - Salgaiak jartzeko sei apal.
 - Kanpoko argiak.
 - Errotulu komertziala.
 - 3300W-ko diferentzialeko koadro elektrikoa eta hiru entxufe.

II. Eranskinean ikus daiteke etxolen xehetasun teknikoa .

Etxola guztien **kanpoko apainketa** (errotulu identifikatzailea parte-hartzaile bakoitzaren izen komertzialarekin eta girlanda apaingarria) Donostia Sustapenari dagokio, eta hura arduratuko da, hain zuzen, estetika komunari jarraituz modu homogeen jartzeaz. Erakusketariak ezin du errotulazio-elementurik jarri ez etxolen aurrealdean ez alboetan. Era berean, etxolaren inguruetan ezin izango da merkataritza-seinalerik jarri.

Barruko apainketa etxola erabiltzen duenaren esku dago. Diseinu egokia eta kalitatezkoa izan behar du, Gabonetako Azokaren irudi estetiko orokorrarekin koherentea izan behar du, eta eusteko elementu ez inbaditzaileak eta itzulgarriak izan behar ditu, etxolan kalterik eragin ez dezaten.

Material birziklatuak eta jasagarriak erabiltzea lehenetsiko da.

Azokak sare elektrikoa eta ura, komun publikoak, segurtasuneko langileak eta jardueren arreta eta koordinazioko langileak izango ditu. Era berean, Donostia Sustapenak etxolen barruan jartzeko su-itzalgailu bat banatuko du ausaz etxolen artean.



Etxolen potentzia elektrikoari dagokionez, **koadro monofasikoa** dute. Haien ekipamenduarengatik koadro trifasikoa behar dutenean, Sustapenak aldaketa horrek eragingo duen **kostu gehigarriaren** berri emango dio erakusketariari, eta hark ordaindu beharko du.

2.2.3. Food truck-ak:

Gabonetako Azokak food truck-ek espazioak erabiltzea aurreikusten du. Gune horiek Urumea plaza, Ramon Labayen plaza eta Andia kalea izan daitezke. Donostia Sustapenak adieraziko du, merkataritza-eskaintzaren orekaren arabera, eskatzaile bakoitzak hartu beharreko lekua.

2.3. Elikagaiak manipulatzeko etxolak:

Donostiako Osasun Sailak Gabonetako Azokari buruz emandako osasun-jarraibideek honako arau orokor hau ezartzen dute **zurezko etxoletan**:

- Ezingo direla produktuak hutsetik hasi, ezta prestatutako janaria edo catering jarduerarako berriazko baimena ez duten ostalaritza establezimenduetan prestatutako elikagaiak saldu.
- Ezinbestekoa da produktuen erregistro sanitarioa izatea (norberarena edo hornitzailearena) eta legez elikagaiak saltzeko eta/edo egiteko ezarritako baimenak edo lizentziak izatea. Dagokien erregistro sanitarioa duten elikadura produktuak bakarrik saldu ahal izango dira
- Elaborazio sinpleak egin ahal izango dira (esaterako: crepeak, taloak, garrapiñatuak, txokolate beroa, ogitartekoak, etab.).
- Elikagaiak ongi mantentzea bermatuko duen moduan gordeko dira.
- Alergenoei eta intolerantziei buruzko informazioa jaso beharko dute.
- Jarduera beharrezkoa den segurtasun bermearekin egikaritzeko behar duten ekipamenduarengatik edo ezaugarriarengatik 3x2m etxolak bermatutako espazioa baino handiagoa behar duten jarduerak etxola handiagoa hartu beharko dute (4x2m edo 2 etxola 3x2m elkartuta).
- Ezinbestekoa da eskuak garbitzeko konketak edukitzea elikagaiak manipulatzeko direnean.

Food truck-en kasuan, ibilgailuak elikagaiak egiteko baimena izan beharko du (dagokion komunitateko osasun-agintarien baimenak).

Edonola ere, elikagaien salmenta edo manipulazioa hartzen duen proposamen orok Donostiako Udalaren Osasun departamentuaren baimena jaso behar du. Horretarako, Donostia Sustapenak eskatzaileek ekarritako dokumentazio guztia bidaliko du eta adi egongo da udal departamentu horren erantzunari.

Indarrean dagoen osasun araudia beteaz, elikagaiak manipulatu diren etxola guztietan jarri beharko da nahitaez **konketa**. Konketa erakusketariak berak jarri ahal izango du, horretarako ezarritako baldintzak eta arauak beteaz, edo, erakusketariak eskatuta, Donostia Sustapenak jar dezake 272,25 euro gehiagorengatik (BEZ barne).

Donostia Sustapenak eskaintzen duen eta erakusketarien esku jar dezakeen konketak sistema eramangarria du, 10 litroko 2 bidoi eta bi akzioko pedala.

Araudiaren arabera jarduera egiteko ura beharrezkoa duten kasuetan zein, beste arrazoi batzuegatik, ura behar duten kasuetarako izango da eskaintza.



Etxolek eta/edo food truck-ek eskainitako elikagai-produktuen kontsumoa etxolaren inguruan edo Donostia Sustapenak hornitutako altzari osagarriak dituzten eremuetan kontsumitzen bada, erakusketariak arduratuko dira altzari horiek behar bezala mantentzeaz eta garbitzeaz, bai eta leku horietan sortzen diren hondakinak biltzeaz eta kudeatzeaz ere.

Osasun araudia ez betetzearen ondoriozko isunak edo bestelako erantzukizunak (zuzenak ala ez), baimenak eta bestelakoak, erakusketariak bere gain hartuko ditu. Donostia Sustapenak ez du erantzukizunik izango zentzu honetan.

2.4. Etxolak elkartzea:

Adierazitako neurriak gainditzen dituen merkataritza-etxola batean interesa duen erakusketariak 6x2m-ko gehieneko tamaina eskatu ahal izango du, 3x2m-ko bi etxola elkartzuz.

Lotura horri esker, barne-espazio zabala lor daiteke. Aukera hau etxolaren eskaera aldi osokoa denean bakarrik eskaintzen da, eta erakusketariak **225,06 euroko** kostu gehigarria ordaindu behar izango du (BEZA barne).

2.5. Euskararen normalkuntza:

Hautatutako erakusketariak Donostiako Udaletxean euskararen erabileraren normalkuntzarako ezarritako arauak bete beharko dituzte. Beraz, komunikazio euskarri eta kartel guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute. Horretarako, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute, Donostia Sustapenaren bitartez.

2.6. Kokapena:

Gabonetako Azoka hirigune osoan zehar zabalduko da. Etxolak Urumea Pasealekuan jarriko dira, Santa Catalina zubiaren eta Maria Cristina zubiaren arteko zatian, Urumea plazan eta Ramón Labayen Plazan eta inguruan jarriko da.

Donostia Sustapenak eskubidea du Gabonetako Azoka jartzeko guneak aldatzeko eta/edo handiagotzeko eta, gainera, Gabonetako Azoka egiteko kalea okupatzeak eragin ditzakeen arazoei begira, haren kokapena alda dezake. Beti ere, hiriaren erdian dagoen kokapenen batean jarriko da, bisitari ugari izaten dituen.

4X2m-ko etxolak, nagusiki, Urumea Plazan jarriko dira, haien tamaina dela eta. Food truck-ak Urumea plazan, Ramon Labayen plazan eta Andia kalean jar daitezke.

Donostia Sustapenak zehaztuko du etxolen behin betiko kokapena, Gabonetako Kanpaina hasten den eguna baino 10 egun lehenago gutxienez. Kokapena lortutako balorazioan oinarrituta egingo da, kategoria bakoitzean lortutako puntuatzeko irizpideen arabera, oinarri hauen 8. artikuluan zehaztuak, eta baita mix komertzialaren banaketa irizpideetan ere.



3. ALOKAIRUAREN ETA ERABILERAREN BALDINTZAK

Jarraian, erakusketariak uneoro eta Gabonetako Azoka garatzen den bitartean bete beharko dituzten baldintza guztiak bildu ditugu:

3.1 EGUTEGIA, ORGUTEGIA ETA PREZIOAK

3.1.1 Egutegia:

Etxolak eta food truck-ak irekita egon beharko dute egunero 2024ko azaroaren 29tik 2025eko urtarrilaren 6ra arte. Ezingo dute itxi aldi horretako egun batean ere ez, Donostia Sustapenak ez irekitzeko aukera ematen dionean izan ezik, edo arrazoitutako kausa batengatik erakusketariari horretarako baimena eman zaionean izan ezik.

3.1.2 Orduategia:

Hurrengo izango da irekitze-ordutegia:

Lanegunak:

- Etxolak irekitzeko ordu-tartea: 11:00-21:30.
- Etxolen nahitaezko irekitze-ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.

Jaiegunak eta jaiegunen bezperak (ostiralak barne):

- Etxolak irekitzeko ordu-tartea: 11:00-22:30.
- Etxolen nahitaezko irekitze-ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.

Aurreko ordutegien salbuespenak:

- Gabon-gaua (abenduak 24), Urtezahar-gaua (abenduak 31) eta Errege bezpera (abenduak 5):
ixteko ordua 19:00etara aurreratuko da.
- Eguberri eguna (abenduak 25), Urteberri eguna (urtarrilak 1) eta Errege Eguna (urtarrilak 6):
Etxolak eta food truck-ak itxita egon daitezke, erakusketariaren erabakiaren arabera eta Donostia Sustapenari aldez aurretik eta idatziz baimena eskatu bazaio.

Halaber, eta oro har, erakusketari guztiei jakinarazi ondoren, Donostia Sustapenak eskubidea du aurreko paragrafoetan adierazitako ordutegiak aldatzeko eta, ezinbestez bada edo aparteko arrazoi batengatik bada ere, esaterako klima fenomenoak eta/edo sanitarioak direla-eta.

Edozein erakuslek egutegia eta ordutegia behin eta berriz betetzen ez baditu, arrazoi objektibo justifikaturik gabe, etxola edo food truck-a ustiatzeko eskubidea gal dezake, eta, ondorioz, Gabonetako Azokan parte hartzeko eskubidea, eta Donostia Sustapenak eskubidea izango du oinarri hauen 10. artikuluan bildutako isunak aplikatzeko.

3.1.3 Prezioa:

Donostia Sustapenak, hiriaren garapen ekonomikoaren alde, etxolaren kostuaren zati handi bat hartuko du (ikus etxola instalatzearen kostu ekonomikoak I. eranskinean).

Hauek dira erakusketarientzako prezioak, Donostia Sustapenaren diru-laguntza aplikatu ostean (etxola aldi osorako edo hamabost egunerako alokatzeko aukera dago, eta food truck-en kasuan aste baterako):



A) Aldi osorako prezioa (2024ko azaroaren 29tik 2025eko urtarrilaren 6ra):

- Etxola txikiak: 1.863,40 euro (BEZ barne)
- Etxola handiak: 2.776,95 euro (BEZ barne)
- Food truck-ak: 2.776,95 euro (BEZ barne)
- Eskuak garbitzeko konketa: 272,25 euro (BEZ barne)
- 3x2m-ko etxolak elkartzea: 225,06 euro (BEZ barne)

B) Prezioa aldiko:

Lehenengo zatia: 2024ko azaroaren 29tik 2024ko abenduaren 21era.

Bigarren zatia: 2024ko abenduaren 22tik 2025eko urtarrilaren 6ra.

- Etxola txikiak: 1.113,20 euro (BEZ barne)
- Etxola handiak: 1.566,95 euro (BEZ barne)
- Food truck-ak: 1.566,95 euro (BEZ barne)
- Eskuak garbitzeko konketa: 272,25 euro (BEZ barne)

C) Prezioa asteko:

- Food truck-ak: 853,05 euro (BEZ barne)

3.2 BESTE BALDINTZA BATZUK

Etxola eta food truck bakoitzeko 200,00 euroko fidantza ezarri da, hartan edo hartutako tokian egin daitezkeen eta bertan egongo denaren erruz gerta daitezkeen kalteei aurre egiteko. Fidantza itzultzeko, etxola eta okupatutako espazioa ongi mantendu dela egiaztatuko duen txosten teknikoa beharko da.

Etxoletako erakustokiek eta food truck-ek konpromisoa hartzen dute merkaturatuko den produktua edo produktuak saltzeari buruzko araudian ezarritako baldintza, betebeharrak eta baldintza guztiak betetzeko, bai eta edozein erakustokiri aplikatu dakizkiokeen lan eta zerga betebeharrak guztiak betetzeko ere. Halaber, etxolen eta food truck-en inguruak ere garbi mantentzeko konpromisoa hartzen dute, haien atzeko aldeari dagokienez gehienbat.

Gabonetako Merkatuan erakusketari gisa parte hartzeko, Donostia Sustapenaren eta erakusketariaren (ahaldunak ordezkatutako pertsona fisikoa edo juridikoa) arteko kontratua sinatu beharko da.

Kontratua sinatu aurretik ordainduko da prezio osoa, urria hasi aurretik, bankuko transferentzia bidez Donostia Sustapenak adierazitako bankuko kontura. Etxolen erakusketariak prezioa Donostia Sustapenak ezarritako epean ordainduko ez balute, edizio honetan Donostiako Gabonetako Azokan parte hartzeko eskubidea galduko lukete.



4. ONLINE GABONETAKO AZOKA

Gabonetako Azokaren formatu klasikoarekin batera (fisikoa), Donostia Sustapenak Gabonetako Online Azoka ere antolatuko du, non aukeratutako erakusketariei saltzeko kanal berri bat eskainiko dien. DSS Market Plaza plataformaren bitartez (Donostia Sustapenarena), nahi izanez gero, interesa duten erakusketariak zerbitzu pertsonalizatua eskaini ahal izango diete kontsumitzaileei, plataforma digitalaren bitartez erosketa esperientzia pertsonalizatuz (<https://dssmarketplaza.eus>).

Edozein kasutan, erakusketariak kudeatu beharko du plataforma barruan bere online gunea, eta berak hautatuko ditu produktuak, haien argazkiak atera, editatu eta webgunera igo.

Donostia Sustapenak pizgarriak eskainiko ditu DSS Market Plazan saltzea sustatzeko, eta berariazko oinarriak argitaratuko ditu hartan parte hartzea arautuko dutenak.

5. ENTITATE ERAKUSKETARIEN BALDINTZAK

Pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nazionalak nahiz atzerrikoak izan daitezke etxolen edo food truck-ak jartzeko espazioen alokairuaren onuradunak, bai eta aurrekoen nortasunik gabeko elkarteak ere, antolamendu juridikoaren arabera balio osoz eratuak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare-sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikulua arabera definituta.

Ezin izango zaie esleitu etxola edo food truck bat jartzeko espazio baten alokairua pertsona fisiko edo juridikoei, baldin eta dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatu badira. Ezta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak Gabeko Bizitza Libreetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioa egiteagatik zigortutakoak barne. Era berean, ezingo da laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso etxola edo espazio baten alokairua esleitzeko zehapen administratibo edo penalak ezarri zaizkionak, sexu-bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik, zehapenean ezarritako aldiari. Era berean, ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek, baldin eta halakorik ez badute, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatu neurririk ezarri dutenik sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera.

Eskatzaileek, haien erantzukizunpean, eskaintzen dituzten prestazioak egiteko beharrezkoa den enpresa gaitasuna eta profesionala izango dute.

Oinarri hauetan araututako alokairuen onuradun guztiek bete beharreko **betekizunak** dira:

- a) Autonomo/enpresa gisa dagokion erregimenean alta emanda egotea Gabonetako Azokan salmenta jarduerari ekiteko unean. Eskakizuna egiteko unean alta emanda ez badago, Gizarte Segurantzaren



erregimenean alta emateko konpromisoa azaldu behar du, eta baita hari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) ere, Gabonetako Azokan parte hartzen hasi aurretik. Langileak izatekotan, haiek afiliatu eta alta ematea, eta dagozkien lan obligazioak eta zerga-obligazio guztiak beteaz.

Donostiako Udalarekin eta Sustapenarekin zorrik ez izatea.

- b) Gabonetako Azokan jarduera hasteko unean erakusketari bakoitzak jarduera garatzeko eska ditzakeen baimen guztiak izatea.
- c) Kontratua sinatzen den unean gutxienez EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (150.000) EUROKO Erantzukizun Zibileko Asegurua izatea, kontratuaren aldian jarduerak izan ditzakeen erantzukizunak estaltzeko.

6. ESKAKIZUNAK ETA EPEA

6.1 Eskakizunak

Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta baita Donostia Sustapenen webgunean. Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez aurkeztuko dira eskakizunak (www.donostiagabonetakoazoka.eus), hartan bildutako baldintzen arabera.

Eskaera bat aurkeztuko da pertsona fisiko edo juridiko interesdun bakoitzeko, eta bertan adieraziko da zer produktu mota den eta, hala badagokio, zenbat etxola diren eta zenbat denboraz okupatuko diren. Ezin da bitarteko pertsona fisiko edo juridikorik erabili etxola bat baino gehiago lortzeko.

Gorabeheraren bat izanez gero, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da, eta hark erabakiko du nola tramitatu. Edozein informazio edo kontsultarako, 943.482800 telefonora deitu edo fomentoss@donostia.eus helbidera idatzi, erreferentzia gisa hurrengo adieraziz: Gabonetako Azoka.

Gabonetako Azokan etxolen erakusketari gisa izena emateko eskakizunak gutxienez hurrengo **dokumentazioa** izan behar du:

- Eskakizunaren eranskina.
- Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANren kopia.
- Pertsona juridikoa bada, sinatzailearen IFKren eta NANaren kopia eta ahalmena.
- Eratu gabeko enpresa bada, enpresa eratzeko berariazko borondatea adierazi beharko da (atxiki eskakizuna).
- Memoriaren eranskina, behar bezala beteta. Memoriak informazioa eman beharko du eskaera oinarri hauetako 8. artikuluan adierazitako balorazio irizpideen arabera ebaluatu ahal izateko. Informaziorik ez badu, irizpide honen puntuazioa zero puntukoa izango da.

Nahitaezkoa da ebaluatzeko irizpide bakoitzari dagokion informazioa eskaintzea (ikus 8. «Eskakizunen prozedura eta balorazioa» atala) aurkeztutako proposamena hobeto baloratzeko eta puntuazio handiagoa lortzeko.



- Argazkiak: dekorazioaren (langileen barnealdea eta jantziak) eta produktuen argazkiak, baita produktuen kokapena etxola/food truck-ean ere. Era berean, food truck-en kasuan, ekitaldian erabiliko den ibilgailu egokituaren argazkiak bidali beharko dira. Argazkiak jpg edo pdf formatuan egongo dira eta ezingo dute 5 Mb baino gehiagoko pisua izan.
- Enpresak zerga helbidea Donostian duela egiaztatzeko edo, gutxienez, Gipuzkoako enpresa izanik establezimendu fisiko bat hirian dutela egiaztatzeko, Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak jaulkitako jarduera ekonomikoen zergaren akreditazio historikoa (altak, bajak, aldaketak, jardueraren epigrafeak).

Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzearen aurka egin dezake eskatzaileak eta horien arrazoiak eman beharko ditu (2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. Artikulua, Datuen Babesekoa) eta dagozkien ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

- Jarduera ekonomikoen-historikoen dokumentu eguneratua, enpresa eskatzailearena, dagokion Aldundiak jaulkia.

Gainera, **Gabonetako ohiko elikagaiak I. multzoaren** kasu zehatzean, zehaztutako aurreko dokumentuez gain, hurrengoak ere aurkeztu behar dira:

- Arrisku higieniko-sanitarioak bere gain hartzen dituen «Erantzukizunpeko Adierazpena» dokumentua sinatuta (dokumentua Donostia Sustapenaren eskaera-plataforman deskarga daiteke).
- Produktu bakoitzaren erregistro sanitarioa. Erregistro sanitarioa balizkoa izan behar du produktua ekoizleak jarduera garatzen duen udalerritik kanpo saldu ahal izateko eta, edonola ere, gure hirian saldua izateko. Ez da onartuko tokirako bakarrik den erregistrorik (eskakizunaren eranskin gisa barne).

Eskakizunetan jarduerarako beharrezkoak diren behar espezifikoen informazio xehatua azalduko da, erakundeak azter eta balora ditzan, egokitasunaren eta bideragarritasunaren aldetik.

6.2 Epea

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, BOG, **argitaratzen den egunaren hurrengotik eta 2024ko uztailaren 22ko** gaueko 12ak arte aurkeztu ahal izango dira eskakizunak. Donostia Sustapenak eskubidea izango du eskakizunak aurkezteko epea zabaltzeko eta baita eskakizunen aldi berri bat irekitzeko ere, egindako balioztapenean 65 puntu gainditu ez dituzten erakusketarien kopuru nahikoa ez balego, 8. artikuluan zehaztutako irizpideetan oinarrituta.

Oro har, ez da onartuko salmenta-eskaerarik oinarri hauetan ezarritako daten aurretik edo ondoren. Oinarri hauetan ezarritako epean eskuragarri dauden etxola baino eskabide gutxiago jasotzen badira edo 65 puntu baino gehiago lortu ez badituzte, eskabide-epea amaitu ondoren aurkeztutako eskabideak onartu ahal izango dira, sarrera-erregistroari jarraituz. Etxola guztiak okupatzeko behar beste eskaera hartuko dira kontuan.



7. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Eskakizunaren erregistroa egiteko unean, eskakizunaren inprimakia Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioarekin batera bidali beharko da.

Dokumentazio guztia berrikusita, egiaztatzen bada eskaera ez dela osorik bete, edo ez direla aurkeztu behar dagokion dokumentazioarekin batera, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean, zuzenketa jakinarazten zaion egunetik hasita, akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaera hori baztertu egingo dela, izapide gehiagorik gabe, eta, beraz, ebazpena emango duela.

Donostia Sustapenak azalpenak eskatu ahal izango ditu, egokiak baderitze.

8. ESKAKIZUNEN PROZEDURA ETA BALORAZIOA.

Etxolen eta food truck-en espazioen esleipena norgehiagokako printzipioen arabera egingo da. Etxolen eta food truck-en espazioen erabilera atal honetan zehazten diren irizpideen arabera ebaluazioa egin ondoren puntu gehien dituzten eskakizunei esleituko zaie. Itxaron zerrenda sortu ahal izango da puntu gehien dituzten eskakizunentzat, Gabonetako Azokan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Produktuen kategoria bakoitzarentzat hurrengo erakusketarien portzentajea balioesten da totalarekiko:

- ❖ I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak:** % 35
- ❖ II. MULTZOA: **Jostailuak eta haurrentzako opariak:** % 10
- ❖ III. MULTZOA: **Artisautza eta Gabonetako opariak:** % 40
- ❖ IV. MULTZOA: **Gabonetako apainketa:** % 15

Portzentaje horiek orientatzeko baino ez dute balio. Edozein kasutan, Donostia Sustapenak eskubidea du portzentaje horiek aldatzeko.

Erakusketarien aukeraketa hurrengo kategoria bakoitzarentzat irizpide hauekin egingo da:

I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak:**

Ondoren, Gabonetako ohiko elikagaiak baloratzeko irizpideak bereizten dira:

- I.I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak, etxolak.**
- I.II. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak, food truck-ak.**

I.I. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak, etxolak.**

Balorazio irizpideak:	Puntuazioa
Produktuaren erakusketa eta eskuragarritasuna	30 puntu
- Barne-estetika/diseinua: 12 puntu	
- Produktua nola jartzen den etxolan: 12 puntu	
- Saltzaileen jantziak: 6 puntu	
Etxean egindako produktuak	15 puntu
Eskaintzaren kalitatea eta egokitasuna	15 puntu



Tokiko elikagaiak eta/edo hornitzaileak	10 puntu
Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak	10 puntu
Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak	10 puntu
JEZ eta/edo Donostian establezimendu fisikoa	5 puntu
Erakusketarien dinamizazio jarduerak	5 puntu

Balorazio irizpideen azalpena:

Aurkeztutako proposamena baloratu ahal izateko, argazkiak eta kalitatezko materiala erantsi beharko dira, balorazio irizpide bakoitzean izandako jardunaren berri izateko.

Eskatzaileei gogorarazten zaie balorazioa aurkeztutako dokumentazioari buruzkoa baino ez dela izango (memoria, argazkiak, fotomuntaiak, produktuen fitxak, dekorazioaren azalpena, etab.).

- **Produktuaren erakusketa eta eskuragarritasuna:** *Gehienez 30 puntura arte.*
 - Barruko estetika: saltokiaren barruko apaingarriak, dekoratzeko elementuak nola jarri diren eta Gabonetako Azokarekin koherenteak diren ala ez baloratuko dira. *Gehienez 12 puntura arte.*
 - Produktua nola jarri den: saltokian produktuak erakusteko kontua, ordena eta xehetasunak baloratuko dira. *Gehienez 12 puntura arte.*
 - Janzkera: Gabonetako jantzi zaindua eta etxolan saltzen denarekin lotuta dagoen baloratuko da. *Gehienez 6 puntura arte.*
 - **Norberak egindako produktuak:** erakusketariak egindako produktuen eskaintza baloratuko da. *Gehienez 15 puntura arte.*
 - **Eskaintzaren aniztasuna eta egokitasuna:** saltzen diren produktuen kalitatea eta egokitasuna baloratuko da. *Gehienez 15 puntura arte.*
 - **Tokiko elikagaiak eta/edo hornitzaileak:** eskainitako produktuen jatorria baloratuko da, hurbileko produktuak: Donostia-Donostialdea. *Gehienez 10 puntura arte.*
 - **Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak:** produktu ekologikoak eta ekologikoen eta intolerantziei egokitutako produktuen eskaintza baloratuko da. *Gehienez 10 puntura arte.*
 - **Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoak eta ez kutsatzaileak erabiltzea baloratuko da. *Gehienez 10 puntura arte.*
 - **JEZ edo/eta establezimendu fisikoa Donostian:** jardueraren JEZ Donostiako hirian izatea edo/eta eskatzaileak Donostiako hirian saltoki fisikoa izatea baloratuko da. *Gehienez 5 puntura arte.*
 - **Postuaren edo azokaren dinamizatorako jarduerak egitea:** eskatzaileak bere postuan edo Donostiako Gabonetako Azokan egiteko dinamizazio jarduera zehatzak eta egingarriak proposatzea baloratukoda. *Gehienez 5 puntura arte.*
- Azken puntu horren barruan jarduerak aurkeztu eta puntu gehien lortzen dituzten eskatzaileek Gabonetako kanpainan zehar egin beharko dituzte.

I.II. MULTZOA: **Gabonetako ohiko elikagaiak, food truck-ak.**

Balorazio irizpideak:	Puntuazioa
Produktuaren estetika eta erakusketa	30 puntu
- Barne-estetika/diseinua: 12 puntu	
- Food truck-aren kanpoko estetika: 12 puntu	



- Saltzaileen jantziak: 6 puntu	
Etxean egindako produktuak	15 puntu
Eskaintzaren kalitatea eta egokitasuna	15 puntu
Tokiko elikagaiak eta/edo hornitzaileak	10 puntu
Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak	10 puntu
Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak	10 puntu
JEZ eta/edo Donostian establezimendu fisikoa	5 puntu
Erakusketarien dinamizazio jarduerak	5 puntu

Balorazio irizpideen azalpena:

Aurkeztutako proposamena baloratu ahal izateko, argazkiak eta kalitatezko materiala erantsi beharko dira, balorazio irizpide bakoitzean izandako jardunaren berri izateko.

Eskatzaileei gogorarazten zaie balorazioa aurkeztutako dokumentazioari buruzkoa baino ez dela izango (memoria, argazkiak, fotomuntaiak, produktuen fitxak, dekorazioaren azalpena, etab.).

- **Produktuaren estetika eta erakusketa:** *Gehienez 30 puntura arte.*
 - Barruko estetika: saltokiaren barruko apaingarriak, dekoratzeko elementuak nola jarri diren eta Gabonetako Azokarekin koherenteak diren ala ez baloratuko dira. *Gehienez 12 puntura arte.*
 - Kanpoko estetika: food truck-aren zainketa, irudia eta xehetasunak baloratuko dira. *Gehienez 12 puntura arte.*
 - Janzkera: Gabonetako jantzi zaindua eta etxolan saltzen denarekin lotuta dagoen baloratuko da. *Gehienez 6 puntura arte.*
- **Norberak egindako produktuak:** erakusketariak egindako produktuen eskaintza baloratuko da. *Gehienez 15 puntura arte.*
- **Eskaintzaren aniztasuna eta egokitasuna:** saltzen diren produktuen aniztasuna, egokitasuna eta kalitatea baloratuko da. *Gehienez 15 puntura arte.*
- **Tokiko elikagaiak eta/edo hornitzaileak:** eskainitako produktuen jatorria baloratuko da, hurbileko produktuak: Donostia-Donostialdea. *Gehienez 10 puntura arte.*
- **Produktu ekologikoak eta intolerantziei egokituak:** produktu ekologikoak eta ekologikoen eta intolerantziei egokitutako produktuen eskaintza baloratuko da. *Gehienez 10 puntura arte.*
- **Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoak eta ez kutsatzaileak erabiltzea baloratuko da. *Gehienez 10 puntura arte.*
- **JEZ edo/eta establezimendu fisikoa Donostian:** jardueraren JEZ Donostiako hirian izatea edo/eta eskatzaileak Donostiako hirian saltoki fisikoa izatea baloratuko da. *Gehienez 5 puntura arte.*
- **Postuaren edo azokaren dinamizatorako jarduerak egitea:** eskatzaileak bere postuan edo Donostiako Gabonetako Azokan egiteko dinamizazio jarduera zehatzak eta egingarriak proposatzea baloratukoda. *Gehienez 5 puntura arte.*

Azken puntu horren barruan jarduerak aurkeztu eta puntu gehien lortzen dituzten eskatzaileek Gabonetako kanpainan zehar egin beharko dituzte.



II, III eta IV MULTZOAK: **Jostailuak eta haurrentzako opariak; artisautza eta opariak; eta Gabonetako apainketa:**

Balorazio irizpideak:	Puntuazioa
Produktuaren kalitatea eta originaltasuna.	30 puntu
Produktuaren erakusketa eta eskuragarritasuna	30 puntu
- Barne-estetika: 12 puntu	
- Produktua nola jartzen den etxolan: 12 puntu	
- Saltzaileen janzkera: 6 puntu	
Gabonetako izaera	20 puntu
Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak	10 puntu
JEZ eta/edo Donostian establezimendu fisikoak	5 puntu
Erakusketarien dinamizazio jarduerak	5 puntu

Balorazio irizpideen azalpena:

Aurkeztutako proposamena baloratu ahal izateko, argazkiak eta kalitatezko materiala erantsi beharko dira, balorazio irizpide bakoitzean izandako jardunaren berri izateko.

Eskatzaileei gogorarazten zaie balorazioa aurkeztutako dokumentazioari buruzkoa baino ez dela izango (memoria, argazkiak, fotomuntaiak, produktuen fitxak, dekorazioaren azalpena, etab.).

- **Produktuaren kalitatea eta originaltasuna:** Produktuen kalitateak haien diseinuaren, kalitatearen eta materialen arabera baloratuko dira. *Gehienez 30 puntura arte.*
- **Produktuaren erakusketa eta eskuragarritasuna:** *Gehienez 30 puntura arte.*
 - Barruko estetika: Etxolaren barruko apaingarriak, dekoratzeko elementuak nola jarri diren eta Gabonetako Azokarekin koherenteak diren ala ez baloratuko dira. *Gehienez 12 puntura arte.*
 - Produktua nola jarri den: saltokian produktuak erakusteko kontua, ordena eta xehetasunak baloratuko dira. *Gehienez 12 puntura arte.*
 - Janzkera: Gabonetako jantzi zaindua eta etxolan saltzen denarekin lotuta dagoen baloratuko da. *Gehienez 6 puntura arte.*
- **Gabonetako izaera:** Gabonetan kontsumitzen diren ohiko produktuen eskaintza baloratuko da. *Gehienez 20 puntura arte.*
- **JEZ edo/eta establezimendu fisikoak Donostian:** jardueraren JEZ Donostiako hirian izatea edo/eta eskatzaileak Donostiako hirian saltoki fisikoak izatea baloratuko da. *Gehienez 5 puntura arte.*
- **Material ekologiko birziklatuak eta birziklagarriak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoak eta ez kutsatzaileak erabiltzea baloratuko da. *Gehienez 10 puntura arte.*
- **Postuaren edo azokaren dinamizatorako jarduerak egitea:** eskatzaileak bere postuan edo horretarako azokan prestatutako gunean egiteko dinamizazio jarduera zehatzak baloratuko da. *Gehienez 5 puntura arte.*

Azken puntu horren barruan jarduerak aurkeztu eta puntu gehien lortzen dituzten eskatzaileek Gabonetako kanpainan zehar egin beharko dituzte.

Produktuen kalitatearen gaineko jarraipen berezia egingo du Donostia Sustapenak. Ez dira onartuko ekoizpen mekanizatu baten ondorio diren eta serie handietan egiten diren industria-jatorriko produktuak. Sustapenak Gabonetako Azokan saltzeko egokiak ez diren produkturen bat identifikatzen badu, produktua berehala kenduko dela jakinaraziko dio erakusketari, eta hori kontuan hartuko du parte-hartzaileak etorkizunean egiten dituen eskaerarako.

Jasotako eskakizunak gehienez 100 punturekin ebaluatuko dira, eta gehienez 65 puntu lortu beharko dituzte. Gutxienez 65 puntu horietara iristen ez diren eskakizunak baztertuko dira, eta ezingo dira hautatuak izan, ezta itxaron zerrendan utzi.

Eskaeren kopurua salmenta-jarduera egiteko eskuragarri dauden etxolen kopurua baino handiagoa bada, postuak korrelatiboki esleituko dira, talde bakoitzak Gabonetako Azokako erakusketarien guztizkoaren gainean duen partaidetza-ehunekoa kontuan hartuta eta aurretik aipatutako irizpideen arabera lortutako puntuazioaren arabera, eta berdinketarik egonez gero, sarrera-erregistroaren arabera. Erreserba zerrenda bat eratuko da posturik gabe geratu diren erakusketariekin, betiere azokan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte eta eskatutako 65 puntuak gainditu badituzte.

Etxola erabiltzearen esleipena eman den ala ukatu den, www.donostiagabonetakoazoka.eus webgunean argitaratuko da, Donostia Sustapenak berariaz argitaratutako ebazpen bitartez **2024ko irailaren 19 baino lehen**. Edozein kasutan ere, Donostia Sustapenak eskubidea du epe hori luzatzeko.

Hautatuek, onespenez ebazpena jasoko dute Gabonetako Azokan parte hartzeko kontratuarekin batera, eta gehienez ebazpen horretatik 10 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dute hurrengo dokumentazioa:

- Sinatutako kontratua.
- Fidantza ordaindu izanaren eta etxolaren alokairuaren zenbateko osoaren kopia.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea egiaztatzen duen dokumentua.
- Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak jaulkitako jarduera ekonomikoen zergaren akreditazio historikoa (altak, bajak, aldaketak, jardueraren epigrafeak).

Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzearen aurka egin dezake eskatzaileak eta horien arrazoiak eman beharko ditu (2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. Artikulua, Datuen Babesekoa) eta dagozkien ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

- Jarduera ekonomikoen-historikoaren dokumentu eguneratua, enpresa eskatzailearena, Gipuzkoako Foru Aldundiak jaulkia.
- Gipuzkoan alta emanda ez dauden enpresek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiriaren kopia, egindako jardueraren ondoriozko erreklamazioak estaltzen dituena, baimendutako eperako produktuen ondoriozko erantzukizuna barne, 150.000 euro baino gutxiagoko kalte-ordainarekin.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda ez dauden erakusketariekin, Gabonetako Azokak irauten duen aldian erantzukizun zibileko **asegururik** ez badute, gehienez ere merkatua hasi aurreko 2 asteko epean egin beharko dute, hau da, **azaroaren 11tik 22ra**, eta behar bezala justifikatu beharko dute.

Aurrekoa gorabehera, Donostia Sustapenak beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari, emandako datuak egiaztatzeko.



Dokumentuak aurkezteko epea beteko ez balitz, eskakizuna bertan behera utzi dela ulertuko da, Sustapenak aldez aurretik epea luzatzea eskatzen ez badu justifikatutako arrazoientatik.

9. ERAKUSKETARIEN OBLIGAZIOAK

1. Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko betebeharrak egunean izatea, eta kasu bakoitzean eskatzen den lan-araudia betetzea.
2. Postuan egongo den pertsonak kasu bakoitzean aplikatu beharko diren elikagaien higiene eta segurtasun baldintzak bete beharko ditu. Hainbat pertsona egonez gero, guztiek bete beharko dituzte elikagaien higiene eta segurtasun baldintzak.
3. Donostia Sustapenak Gabonetako Azokan parte hartzeko ezarritako ordutegia, egutegia eta kokalekua betetzea. Etxola bertan saltzeko baino ez da ematen. Hiriko gainerako lekuetan, debekatuta dago kaleko salmenta, aldez aurretik baimenik izan gabe.
4. Esleipendunek bezeroen eskura izan beharko dituzte dagozkien erreklamazio-orriak.
5. Instalazioak, emandako azalera eta inguruak garbitasun, apaindura, osasungarritasun, segurtasun eta higiene egoera ezin hobean edukitzea, bai okupazio orduetan bai hura bukatutakoan. Erakustokiaren ardura izango da zorua eta 10 metroko eragin eremua txukun edukitzea, postuaren muga guztietatik hasita, Donostia Sustapenak etxoletan saldutako produktuak kontsumitzeko jartzen dituen altzariak barne.
6. Elikagaiak manipulatzeko erakusketarien kasuan, osasun, ingurumen eta segurtasun agintariek ezarritako arau eta protokolo guztiak zorrotz betetzea, baita etorkizunean ager daitezkeenetara egokitzea ere, bai lanari lotutako eragiketetan, bai kontsumo eremuetan.
7. Esleitutako instalazioa eskabidean adierazitako helbururako bakarrik erabiltzea.
8. Donostia Sustapenak Gabonetako Azona food etxola edo food truck bat jartzeko espazio bat okupatzeko ezarritako zenbatekoa ordaintzea.
9. Ezin da iltzerik jarri edo beste moduren batean kaltetu etxolaren egitura. Ezingo da atxiki etxolaren egiturari hartan aldaketak eragingo duen elementurik, toldoak, mahaiak, bankua, eta abar barne.
10. Etxolek ezingo dute eduki sukaldetik, hozkailurik, berogailurik, estufarik, argiztatzeko elementurik edo berariaz baimendutako hornidura elektrikoa baino gehiago kontsumitzen duen beste gailurik izango. Ezingo da erabili G.L.P motako gas erregaiak (butanoa, propanoa, etab.) erabiltzen duenik ere, ez etxola barruan ez inguruan.
11. Ezingo dira erabili sorgailurik, Donostia Sustapenaren berariazko baimenarekin izan ezean.
12. Produktuak erakusteko kartel guztiak euskaraz eta gaztelaniaz izatea.
13. Ezingo dira erabili zoladura kalte dezakeen ainguraketarik.
14. Saltzeko baimenak ez utzi, saldu edo azpialokatu hirugarrenei, haiek transferiezinak eta pertsonalak baitira.
15. Bakoitza bere postuan geratzea. Ezingo da handik hona ibili produktuak eskaintzen.
16. Salmenta jarduera egiteko emandako etxolak edo food truck-aren espazioak zehazten duena baino leku gehiago ez okupatzea, eta ez da inolaz ere onartuko salgaiak erakusteko aurreko edo alboko korridorerik okupatzea.
17. Ezin izango da kozinatu postutik kanpo, usainak ez isurtzeko.
18. Beira erabiltzekoan, dagokion edukiontzietan botako da. Ezingo dira erabili beirazko edalontziak.
19. Edariak banatuko dituzten erakusketariek nahitaez erabili beharko dituzte berrerabil daitezkeen eta/edo konposta daitezkeen edalontziak.
20. Ontziratutako olioak bakarrik erabil daiteke.



21. Zorura isurketa oro saihestuko da (olioa, koipea edo bestelakoa).
22. Debeku da standaren kanpoaldean inolako publizitate, propaganda, kartel eta abarrik paratzea. Debeku da saltokietan megafonia indibiduala jartzea.
23. Hala badagokio, artisautzako elikagaiak saltzeko baimendutako instalazioak araudi orokorrean higie eta elikadura arloko baldintzak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko baldintzak arautzen dituen araudian jasotako xedapenetara egokituko dira.
24. Baimena eman ondoren, titularrak, beharrezkoa bada, aseguru-etxearen jatorrizko ziurtagiria aurkeztu beharko du. Ziurtagiri horretan, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat indarrean dagoela egiaztatu beharko du, garatutako jardueratik eratorritako balizko erreklamazioak estaliko dituen, eta, hala badagokio, baimendutako aldirako elikagaietatik eta intoxikazioetatik eratorritako erantzukizuna adierazi beharko du.
25. Emandako baimena eta baimenaren titularraren nortasuna egiaztatzen duten agiriak edozein unetan erakusteko eskubidea, udaleko ikuskatzaileek eta/edo segurtasun-agenteek eskatuta.
26. Halaber, ikuskizun publikoei eta jolas-jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen edukia eta Mendekotasunen eta Droga-mendekotasunen Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea errespetatu beharko dira. Guztiz debekatuta dago 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea. Edariak zerbitzatuko dituzten guztiek izan behar dituzte 18 urte edo gehiago.
27. Jarduerak irauten duen bitartean sortzen diren hondakinak kudeatu eta horretarako dauden edukiontzietan utzi beharko ditu.
28. Okupazioa altxatu ondoren, eremu publikoa okupatu aurretik zituen baldintza beretan utzi beharko da, eta ezin izango da alegatu baimena eskatzean agerian jarri ez ziren kalteak zeudenik.

Gainera, food truck-en kasuan, nahitaez bete beharreko baldintza hauek ezartzen dira:

1. Food truck bakoitzak terrazako altzariak instalatu ahal izango ditu, Donostia Sustapenarekin adostasuna lortu ondoren, eta food truck bakoitza eguneroko garbiketaz eta mantentze-lanez arduratuko da.
2. Autonomoak izango dira funtzionamenduan, elektrizitatearen, ur-hargunearen eta abarren ikuspegitik.
3. Barruan su-itxalgailu bat izan beharko dute nahitaez.
4. Lursaila haiek garbituko dute, eta zaborra instalatutako edukiontzietan utziko dute.
5. Ezin izango dute megafonia propiorik erabili.

10. KONTRATUAREN EBAZPENA

Kontratua ebazteko arrazoiak izan daitezke, jarraian zehazten direnak, besteak beste:

- Pertsona titularrak uko egiten badu. Uko egite horrek 600,00 euroko zigorra kontratua sinatu ondoren eta Azoka hasi aurretik egiten bada. Uko egitea ezinbesteko arrazoiengatik frogatzen den kasuetan ez da zigorrik aplikatuko.
- Pertsona titularraren heriotza.
- Baimena lortzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren baldintza batzuk edo denak galtzea. 600,00 euroko zigorra eragingo du, eta Donostia Sustapenak baldintza horiek galtzeagatik eragindako erreklamazioa eskatu ahal izango dituen kalte-ordainez gain.



- Oinarri hauetan eta kontratuan bertan zehaztutako baldintzak urratzea. 600,00 euroko zigorra eragingo du, eta Donostia Sustapenak urratze horrengatik eragindako erreklamazioa eskatu ahal izango dituen kalte-ordainez gain.
- Gabonetako Azoka bertan behera geratzea ezinbesteko arrazoiak direla eta (herritarren segurtasuna eta interes publiko arrazoitua), eta Donostia Sustapenak ez die erakusketariei inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik ordaindu beharko.

Inaugurazioko aurreikusitako data baino lehen Azoka bertan behera utziko balitz, Donostia Sustapenak erakusketari bakoitzak ordaindutako kantitatearen % 100 itzuliko du. Halaber, bertan behera uztea Azoka hasi ondoren balitz, Donostia Sustapenak erabili ez diren egunei proportzionala den zatia itzuliko luke.

11. DATUEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa jardungo baitu, eta Donostia Sustapena S.A.k kudeatuko duela informazioa, horren arduraduna den aldetik. Tratamenduaren helburua Donostiako Gabonetako Azokan duzun parte-hartzea izapidetzea eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasun-oinarria DBEOren 6.1.e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzean egindako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

Oinarri hauetan edo kasuan kasuko eskabide inprimakietan horrela adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa nahitaez eman beharko da, eta ez bada behar bezala hornitzen edo datu okerrak ematen, eskaera ezin izango da kudeatu.

Ez dago aurreikusita hirugarrenei datuak jakinaraztea, legeak hala agintzen ez badu edo kanpoko hornitzaileek euskarri teknikoa emateko behar-beharrezkoa ez bada. Ez dago aurreikusita datuen nazioarteko transferentziarik. Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Kaltetuek datuak atzitzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eskubideak eta baita datuen babeseke indarrean den araudian datozen beste guztiak erabili ahal izango dituzte, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan (Easo kalea 41, 20006 Donostia). Zure eskubideen erabileran ez baduzu arreta egokia izan, erreklamazioa aurkez dezakezu Datuen Babeserako Euskal Agentzian. Helbidea: Beato Tomás de Zumarraga kalea, 71 – 3. solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, alde zurretik eta nahi izanez gero, Datuak Babesteko Donostiako ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke: dbo@donostia.eus.

12. AZKEN XEDAPENA.

Oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta hura argitaratu den egunean bertan sartuko dira indarrean. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek erabat onartzen direla suposatzen du.



Gainera, eskatzaileak Gabonetako Azokaren berariazko arauak onartzeko konpromisoa hartzen du, bai eta Erakundeak azoka behar bezala garatzeko ezartzen dituen xedapen zehatzak onartzeko konpromisoa ere.

Eskatzaile pertsona/enpresa izango da aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren erantzule bakarra, bai eta jarduera egin aurreko eta ondorengo jarduerak eragindako kalte pertsonal eta/edo material guztiena ere, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostian, 2024ko maiatzaren 27an

Iñigo Olaizola Arcaute

Donostia Sustapena S.A.ko zuzendari gerentea.



I. ERANSKINA: ETXOLEN KOSTU EKONOMIKO XEHATUA

Jarraian, etxola bakoitzaren kostuak zehazten dira:

ERAKUSKETARIEN SARREREN ETA GASTUEN ZERRENDA (BEZa barne)		
	3X2M ETXOLA	4X2M ETXOLA
ERAKUSKETARI BAKOITZAK ORDAINDU BEHARREKO ZENBATEKOA (aldi osoa)	1.863,40€	2.776,95 €
SUSTAPENERAKO KOSTU ZUZENAK ERAKUSKETARI BAKOITZARENGATIK:		
- salmenta-azpiegitura		
- instalazio elektrikoa eta argi-gastua		
- segurtasun-zerbitzua		
- Azokako erakusketariei laguntzeko zerbitzua		
- komunak		
- soinu zerbitzua	4.494€	4.780€

Oharrak: Zuzeneko kostuetan ez da sartzen Sustapenak egiten dituen gastuen zerrenda hau: komunikazioa, garbiketa, zuzendaritza teknikoa eta mantentze-lanak, aisialdiko agenda, azokako gainerako ekipamendu eta azpiegiturak, seinaleak, etab.

II. ERANSKINA: 2 ETXOLA MOTEN DESKRIBAPENA

Kiosko 1 eredua (etxola txikia): 6 m². Neurriak: 3 x 2 m. Barruko alboko altuera 205cm. Barruko altuera erdian 270cm.

Kiosko 2 eredua (etxola handia): 8 m². Neurriak: 4 x 2 m. Barruko alboko altuera 205cm. Altuera erdian 290cm.

Bi ereduek dituzte:

- Atzeko aldean zur trinkoko atea sarrailarekin
- Irekidura 1 aurretik, mostradorearekin eta baskulatzen den leihoa, 800 Neko sistema hidraulikoarekin eta sarrailarekin.
- 2 irekidura aurretik, mostradorearekin eta baskulatzen den leihoa, 600 Neko sistema hidraulikoarekin eta sarrailarekin.

Eguraldi txarra dagoenean etxolak hobeki emateko, aurrealdeko mostradorea kentzeko aukera dago, parte-hartzaile bakoitzak eskatuta.

Bi modeloetan, barrutik hurrengo akaberekin dago osatuta espazio bakarra:

- Okume zurezko 22 mm-ko zoladura.
- Okume zurezko taularekin estalitako teilatua.
- Lasurreko bernizeko akabera.

Funtzionamendu egokia bermatzeko, aginte- eta babes-koadro orokor batez, fluoreszente batek osatutako argiztapen-puntu batez eta 16Ako hiru entxufez osatutako instalazio elektriko bat du.

